

## 1. Atala:

Baso ertzeko haritz handi batean etxola bat eraikitzen ari ziren egun batean ezagutu zuten Lur eta Maiak Ilargi. Eskolako lanak amaitutakoan jolasean aritu ohi ziren bi gazteak eta egun hartan, beren elkarrizketa sekretuetarako, beraien intimitateetarako, leku ezkutatu bat behar zutela otu zitzairen. Hala hasi ziren etxola egiten, Lurren aitonaren biltegiko ohol zaharrek.

- Kaixo... Zera... Zertan ari zarete? – Horrelaxe gerturatu zitzairen Ilargi.

Bi lagunak biratu eta etorri berriari begiratu zioten. Jantzera zarpail xamarreko mutiko bat ikusi zuen Lurrek. Ile beltzaran, luze eta nahasiko neskato bat Maiak. Biek ala biek, ordea, lotsatuta, adinkideren batzuen konpainia nahi zuen lagun berri bat ikusi zuten.

- Iepa! Etxola bat eraiki nahian gabilta. – Hautsi zuen isilunea Maiak.

- Lagunduko? – Gonbidatu zuen Lurrek eta Ilargiri irribarre bat marraztu zitzaion aurpegian.

Egun batzuk behar izan zituzten etxola muntatzeko. Arratsaldetan elkartzen ziren hirurak baso ertzean lanei berrekiteko: Lur marrazketako eskolaz kanpoko amaitutakoan, Maia entrenamendua bukatzerakoan eta Ilargi... Ilargi hantxe aurkitzen zuten besteek. Beti puntual-puntual.

Etxolako teilatua amaitu zuten iluntzean beraien txoko berrian eseri ziren hiru lagunak pozarren.

Alabaina, urruneko haize fresko batek hodeiak ekarri zituen herrira... eta laster hasi zen euria, gero kazkabarra, eta baita tximistak ere...

- Aizue! – Hasi zen larrituta Maia – aitortu beharra daukat... ekaitzek izugarritzko beldurra ematen didate!

